



## CONDICIONES PRUEBAS DEPORTIVAS

1. Se ha de cumplir lo dispuesto en la Ley 339/1990, de 2 de marzo, y en el Reglamento de Circulación (R.D. 1428/2003, de 21 de noviembre) y, en especial, lo dispuesto en su Anexo II.
2. En ningún caso podrá variarse el itinerario, fecha de celebración y horarios previstos, salvo que la Oficina Territorial de Tráfico autorice expresamente dicha modificación con carácter previo.
3. La Organización incorporará vehículos piloto de apertura y cierre, según lo dispuesto en el artículo 9 del Anexo II del Reglamento de Circulación.
4. La Organización deberá indicar con antelación los cortes de tráfico previstos para la celebración de la prueba.
5. Los itinerarios deberán señalizarse en los lugares peligrosos. Las señalizaciones serán colocadas de manera que no provoquen confusión para la circulación ajena a la prueba y deberán ser retiradas o borradas una vez pase el último participante de la prueba. No se permitirá colocar publicidad, realizar pintadas sobre el pavimento, ni utilizar para colgar carteles ningún elemento de la carretera directamente relacionado con la ordenación, orientación y seguridad de la circulación.
6. Todos los cruces del recorrido y zonas peligrosas del mismo serán cubiertas y señalizadas por miembros de la Organización, dotados de vestimenta de alta visibilidad homologada (R.D. 1407/1992), impidiendo la presencia de espectadores en las zonas de peligro. Deberán estar provistos de elementos de señalización adecuados. Se tendrá cerrado el paso de vehículos desde el paso del vehículo portador de la bandera roja hasta el paso del banderín verde. En el tramo inicial de salida, así como en el de llegada, se colocarán vallas protectoras de defensa.
7. El control y orden de la prueba, tanto por lo que respecta a los participantes como al resto de usuarios de la vía, estará encomendado a los agentes de la autoridad o al personal de la organización habilitado, que actuará siguiendo las directrices de los agentes o del responsable de seguridad vial de la prueba.
8. Los organizadores deberán retirar de la misma a los participantes rezagados, que deberán abandonar la prueba, debiendo cumplir las



**normas y señales de circulación en el caso de que sigan circulando detrás de la prueba.**

9. **Se seguirán las instrucciones de la Ertzaintza** en cuanto al cumplimiento de las condiciones de la autorización y de seguridad de la prueba. El incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en la presente autorización llevará consigo la suspensión de la misma Ertzaintza, todo ello sin perjuicio de la posible incoación del oportuno expediente sancionador.
10. Sólo podrán circular en el espacio comprendido entre la bandera roja y la bandera verde los vehículos expresamente autorizados y con la autorización situada en lugar visible, debiendo circular haciendo uso de las luces de cruce.
11. Los organizadores de la prueba responderán de los daños que con motivo de la celebración de la misma pudieran ocasionarse a las carreteras o vías públicas por las que discurra, así como a terceros, y deberán responsabilizarse de la retirada de señales, limpieza y restitución de cuantos desperfectos se pudieran producir en las zonas de influencia de la carretera.
12. Deberá facilitarse el acceso a los servicios de conservación y explotación de la vía.
13. Se dispondrán los servicios sanitarios indicados en el artículo 10 del Anexo II del Reglamento de Circulación.
14. La Ertzaintza destinará agentes suficientes para la cobertura de la prueba y tendrá encomendados el control y orden de la misma junto con los miembros de la organización. En las vías urbanas de municipios que cuenten con policía local, el control y orden de la prueba podrán ser asumidos por la misma.
15. La prueba deportiva se disputará con el **tráfico cerrado al resto de usuarios**, estando habilitado un **plan de desvíos alternativos** en las vías por las que discurra. No obstante, por las características de la especialidad deportiva, este cierre podrá realizarse mediante el **uso exclusivo del carril perteneciente al sentido en el que se desarrolla la carrera**, siempre que quede garantizada la seguridad de los participantes en la prueba y del resto de los usuarios de las vías. **Para realizar los cortes de tráfico, los desvíos alternativos y los usos exclusivos de un carril la organización deberá establecer medidas de señalización y dispositivos de seguridad, con presencia de personal de la organización y de personal auxiliar habilitado por la misma, y les dará publicidad para su conocimiento público.** En el caso de usos exclusivos de un carril deberá, asimismo, colocar elementos de protección en los puntos peligrosos de las vías o establecer otras medidas que garanticen la separación del tráfico entre los carriles de la calzada.



## KIROL PROBEN BALDINTZAK

1. Bete egin beharko da martxoaren 2ko 339/1990 Legean, Zirkulazio Erregelamenduan (1428/2003 E.D., azaroaren 21ekoa) eta, bereziki, bere II. Eranskinean xedatutakoa.
2. Inoiz ezin izango da aldatu ez ibilbidea, ez proba egiteko data, ezta aurreikusitako ordutegiak ere, baldin eta Trafikoko Lurralde Bulegoak aldaketa hori aldeaz aurretik berariaz baimentzen ez badu.
3. Antolatzaileek irekitzeko eta ixteko ibilgailu pilotuak erabiliko dituzte, Zirkulazio Erregelamenduko II. Eranskinaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.
4. Antolatzaileek aurretiaz adierazi beharko dituzte proba egiteko aurreikusita dauden trafikoko eteteak.
5. Ibilbideak toki arriskutsuetan seinaleztatu beharko dira. Seinaleak probakoa ez den zirkulazioarentzat okerrik ez eragiteko moduan jarriko dira eta, halaber, probako azken parte-hartzailea igaro ondoren kendu edo ezabatu beharko dira. Ez da onartuko publizitatea jartzea, zoladuraren gainean pintadak egitea edo kartelak eskegitzeko errepideko elementuak erabiltzea beroriek zirkulazioaren orientazio edo segurtasunarekin zuzenean loturik badaude.
6. Ibilbideko bidegurutze eta alderdi arriskutsu guztietan antolakuntzako kideak egongo dira, erraz ikusteko moduko jantzi homologatuak izanda (1407/1992 E.D.), eta seinaleztatuko dituzte. Gainera, ikusleei gune arriskutsuetan sartzea galaraziko diete. Seinaleztapen-elementu egokiak izan beharko dituzte. Ibilgailuentzat bidea itxita egongo da bandera gorria daraman ibilgailua igarotzen denetik banderatxo berdea pasatu arte. Irteerako hasierako tartean eta helmugako tartean babes-hesiak jarriko dira.
7. Probaren kontrola eta ordena, parte-hartzaileei zein bidearen gainerako erabiltzaileei dagokienez, agintaritzaren agenteen edo antolakuntzako pertsona gaituen esku egongo dira, agenteen edo probako bide-segurtasunaren arduradunaren jarraibideak kontuan hartuz jardungo baitute.
8. Antolatzaileek atera beharko dituzte atzean geratutako parte-hartzaileak, proba bertan behera utzi beharko baitute. Hala



**ere, probaren atzetik zirkulatzen jarraituz gero, zirkulazioko arauak eta seinaleak errespetatu beharko dituzte.**

9. **Ertzaintzaren jarraibideak beteko dira** probaren baimenaren eta segurtasunaren baldintzak betetzeari dagokionez. Baimen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzeak berekin ekarriko du Ertzaintzak proba geldiaraztea, hori guztia zehapen-espeditentea ireki daitekeelako aukera alde batera utzi gabe.
10. Bandera gorriaren eta bandera berdearen arteko bidean bakarrik zirkulatu ahalko dute berariaz baimendutako ibilgailuek, baimena ikusteko moduan izanda, eta argi laburrak piztuta eraman beharko dituzte.
11. Probaren antolatzaileek proba igarotzen den errepideetan edo bide publikoetan sor daitezkeen kalteengatik erantzungo dute, baita hirugarrenei eragindakoenengatik ere. Horrez gain, beren ardura ere izango da seinaleak kentzea, garbiketa egitea eta errepidearen eragin-eremuetan hondatuta egon daitezkeen guztia lehen zegoen bezala uztea.
12. Bidearen kontserbazio- eta ustiapen-zerbitzuei sartzen utzi beharko zaie.
13. Zirkulazio Erregelamenduko II. Eranskinaren 10. artikuluan adierazitako osasun-zerbitzuak egongo dira.
14. Ertzaintzak proba zaintzeko behar beste agente jarriko ditu eta, horrez gain, antolakuntzako kideekin batera, probaren kontrola eta ordena bere ardurapean izango ditu. Udaltzaingoa duten udalerrietako hiribideetan probaren kontrola eta ordena udaltzaingo horrek bere gain hartu ahalko ditu.
15. Kirol-proba **gainerako erabiltzaileentzat trafikoa itxita dagoela** egingo da eta, ildo horretan, proba igaroko den bideetarako **ordezko desbiderapenen plana** prestatuko da. Dena den, kirol-espezialitatearen ezaugarriak direla eta, trafikoa itxi ahalko da **lasterketa egingo den noranzkoari dagokion erreia modu eskusiboan erabiliz**, betiere probako parte-hartzaileen eta bideen gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatuta geratuz gero. **Trafikoko eteteak, ordezko desbiderapenak eta errei baten erabilera eskusiboak egiteko antolatzaileek seinaleztatze neurriak eta segurtasun-dispositiboak jarri beharko dituzte, antolakuntzako pertsonak eta antolakuntzak berak gaitutako pertsona laguntzaileak bertan izanda, eta horiek guztiak jendaurrean azalduko dituzte.** Errei baten erabilera eskusiboaren kasuan, halaber, babes-elementuak jarri beharko dituzte bideko puntu arriskutsuetan edo galtzaren erreien arteko trafikoaren bereizketa bermatzen duten beste neurri batzuk hartu.